



Arartekoaren ebazpena, 2011ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio gizarte laguntzak berriro ere abian jar ditzan eta okerreko kobrantzen ondoriozko zorra barka dezan ez baitago arrazoirik.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailleak, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta guraso bakarreko unitate bateko titularra izateagatik diru-laguntza jasotzen ditu 2011ko azaroaren 5etik.
2. 2010eko irailaren 6tik 10era bitartean, zegokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte langileak zenbait bider deitu zion telefonoz erreklamatzailari Euskadi + Planarekin lotutako elkarrizketa batzuetara joateko gonbidapena luzatze aldera baina ez zuen erantzunik jaso.
3. Ondorioz, azaroaren 30ean erreklamatzailari idazki bat bidali zioten eta horren bitartez entzunaldi izapidea burutzerara joan zezan eskatu zioten deiei erantzun ez izana justifikatzeko. Horri erantzunez, abenduaren 17an erreklamatzailleak idazki bat aurkeztu zuen eta bertan azaldu zuen ez zeukala telefono mugikorrik zerbitzurik gabe geratu zelako. Zenbait egun lehenago, 9an hain zuzen, gizarte langilearekin hitzordua zuen egunean, inguruabar horren berri eman zion.
4. Hala eta guztiz ere, 2010eko abenduaren 1ean prestazioa eten egin zioten gizarteratzeko hitzarmena ez betetzeagatik. Etete horrek etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea eragin zuen, bai eta guraso bakarreko unitateei dagokien diru-laguntzarena ere.

Gogoetak

1. Hasteko, argi dago gizarte langileak Euskadi + Planeko elkarrizketara joateko beharra jakinarazteko erabili zuen sistema erosoena eta azkarrena dela, gainera erreklamatzailleak hala nahiago zuela adierazi zuen, beraz, egindako hautaketa logikoa da. Hala eta guztiz ere, gerta daiteke deia jasotzen duen pertsonak telefona hartzeko aukerarik ez edukitzea, beste arrazoi batzuen artean, telefona izorratuta daukalako. Jakinarazpenetan akatsen bat egotea aukera erreala denez, gure ustez logikoa da elkarrizketa posta arrunt bidez iragartzea. Izan ere, esku artean dugun kasuan sistema hori eraginkorra izan da, entzunaldi izapidea posta bidez iragarri baitzen eta jaso zuen.



Arabako Foru Aldundiari egindako informazio eskaeraren erantzunean ez da deiei buruzko inolako daturik aipatzen, soilik barruko agiri bat hitzez hitz (izenak kenduta) honako hau jasotzen duena: *"Egun on A o E: Suspensión desde diciembre por incumplimiento del CI: No atendió a las llamadas que se realizaron para las entrevistas de selección del Plan + Euskadi. Cuando efectuaron las llamadas (6, 7, 8, 9 y 10 de septiembre) el CI estaba vigente. Un saludo. Z"*.

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/29 Legeak 58.1. artikuluan, jakinarazpenaren praktikaren inguruan, honako hau ezartzen du: *"Jakinarazi egingo zaizkie interesdunei beren eskubide edo interesak ukitzen dituzten administrazioaren ebazpenak eta egintzak, hurrengo artikuluan ezarritako modu eta neurrietan"*. 59.1. artikuluk zera dio: *"Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, beti ere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada"*. Euskadi Planeko elkarrizketara joateko beharraren gaineko jakinarazpena prestazioak jasotzeko eskubidean eragina zuen administrazio egintza bat zenez, 30/92 Legeak deskribatzen duen eran egin behar zen. Etetearekin amaitzen den gertakarien katea aztertzerakoan, erreklamatzaileren babesgabetasun egoera agerian geratzen da: telefono bidez erreklamatzailerekin harremanetan jartzea ezinezkoa denez, bi hilabete beranduago, entzunaldi izapide batera joan dadila eskatzen zaio dei horiek zergatik ez dituen erantzun azaltze aldera. Dei horiek gauzatu zirela soilik jaso da izaera informala duen barruko agiri batean eta aurkeztutako alegazioak (telefonoa izorratuta zegoela) eta zenbait egun lehenago gizarte langileari emandako datuak ez dira aintzat hartu. Ondorioz, prestazioak eten dira atzeraeraginezko ondorioekin eta okerreko kobrantzengatik 1.290,85 euroko zorra pilatu da.

Gure ustez, prozedura hori ezartzeak udalaren esku uzten du aitortutako eskubide bat bertan behera uzteko erabakia, nahiz eta benetan etete hori aurrera eramateko arrazoi objektiborik ez egon. Kasu honetan behintzat, gizarte langile baten erabaki subjektiboa denez gertakarien kate zorrotzari hasiera eman diona, erabaki subjektibo horren ondorioz zenbait pertsonaren aurkako bereizkeria gertatzeko arriskua dago.

2. Bigarrenez, eteteak atzeraeraginezko ondorioak dituenez, aipatu dugun moduan, modu bidegabean jasotako zenbatekoak direla-eta 1.290,85 euroko zorra pilatu da. Ararteko erakundeak askotan azpimarratu du foru aldundiek daukaten betebeharra, hau da, modu bidegabean jasotako zenbatekoak kobratzeko prozedura berriari hasiera emateko betebeharra, diru-sarrerak bermatzeko errentaren 147/2010 Dekretuaren 57. artikuluari eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren 2/2010 Dekretuaren 35. artikuluari jarraiki. Kasu honetan, arau horrek ezarritakoa ez da kontuan hartu eta horrek, beste eragozpenen artean, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezteko entzunaldi izapidearen deialdia alde



batera uztea eragin du, bai eta zorra 1.290,85 eurokoa izateko arrazoiak zehaztasunez ezagutzeko ezintasuna ere. Kasu horietan sortzen den babesgabetasuna begi bistakoa da.

Hori gutxi balitz, gaineratu beharra dago eteteko ebazpenaren idazkiaren bitartez, erreklamatzailari jakinarazi ziotela hilero 90 euro kenduko dizkiotela haren kontu korrontetik zorra ordaintze aldera. Hori guztia, lehen esan dugun moduan, prozeduraren inguruko gutxieneko bermeak aintzat hartu gabe.

Zentzu horretan, uste dugu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 62.1.e artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko litzatekeela. Artikulu horren arabera, erabat baliogabeak diren administrazio egintzen artean honako hauek daude *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz”*.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

16/2011 GOMENDIOA, ekainaren 13koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari egina

2011ko urtarrilaren 25eko ebazpena bertan behera utz dezan erabat baliogabea delako. Ondorioz, jaso ez dituen zenbatekoak itzuli ditzan eta, era berean, modu bidegabean jasotako zenbatekoek eragin duten zorra baliogabetu dezan.

